

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2022ko apirilaren 28a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 18:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 19:11

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Ainara Munduate Iguaran, Xabier Ibarguren Azkue, Beñat Solaberrieta Albizu, Bakarne Oliden Albeniz, Bittor Andres Alkorta, Lourdes Salsamendi Goñi, Andoni Torres Fernandez, Jon Basurko Sarasua (19:00etatik aurrera parte hartzen du), Amaia Gozategi Urbieta, Jose Javier Gomez de Segura Arce eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Ana Priede Merchan zinegotziak (PSE-EE-PSOE) adierazi du ezin zuela etorri eta, beraz, ez du bilkuran parte hartu.

Gai-zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioaren 6/2022 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea, kreditua transferitzeko modalitatean.
- 2.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioaren 7/2022 zenbakidun kreditu aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatean.
- 3.- Onartzea, egoki bada, 1/2022 zenbakidun konpromiso-kreditua.
- 4.- Onartzea, egoki bada, Udalaren arraunketa eta piraguismoko teknifikazio-zentroa (Arraunetxe) erabiltzeko tasa arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketa (3. tarifa).
- 5.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udal Musika Eskolako 2022-2023 ikasturteko ikasketen tasa arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketa.
- 6.- Onartzea, egoki bada, Udalaren 2022ko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda.
- 7.- Onartzea, egoki bada, aldi baterako enplegua egonkortzeko giza baliabideak arrazionalizatzeko programa.
- 8.- Martxoaren 29ko 208/2022 alkate-dekretuaren berri ematea. Dekretuak erabakiak hartzen ditu udal-langile baten diziplina-espedienteari buruz.
- 9.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOAREN 6/2022 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 6/2022 zenbakidun espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 84.673 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasun- eta pertsonal-batzordeak 2022ko apirilaren 28an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren aurrekontu propioaren 6/2022 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 84.673 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza–Kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko lekua: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOAREN 7/2022 ZENBAKIDUN KREDITU ALDATZEKO ESPEDIENTEA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 7/2022 espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 410.189 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasun- eta pertsonal-batzordeak 2022ko apirilaren 28an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren aurrekontu propioaren 7/2022 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 410.189 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza–Kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeke eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteke epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteke aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeke arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteke lekua: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

3.-ONARTZEA, EGOKI BADA, 1/2022 ZENBAKIDUN KONPROMISO-KREDITUA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Udalaren aurrekontu propioaren 1/2022 zenbakidun konpromiso-kredituak 190.868 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasun- eta pertsonal-batzordeak 2022ko apirilaren 28an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren aurrekontu propioaren 1/2022 zenbakidun konpromiso-kredituari. Konpromiso-kredituak 190.868 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-Kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeke eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteke epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

c) Aurkezteke bulegoa: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era). Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 16.4. artikulua adierazitako gainerako lekuetan ere aurkez daitezke.

d) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, konpromiso-kredituaren espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

4.-ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN ARRAUNKETA ETA PIRAGUISMOKO TEKNIFIKAZIO-ZENTROA (ARRAUNETXE) ERABILTZEKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA (3. TARIFA).

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasun- eta pertsonal-batzordeak 2022ko apirilaren 28an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIA BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren arraunketa eta piraguismoko teknifikazio-zentroa (Arraunetxe) erabiltzeko tasa arautzen duen ordenantza fiskalaren aldetari (3. tarifa).

2.- JENDAURREAN JARTZEA erabaki hau eta hasitako espedientea, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Aginduaren 16.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-taulan iragarkiak argitaratuz, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Udaletxeko idazkaritzan.

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita; betiere, bulego-orduetan.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluko zerrendan agertzen direnak.

d) Aurkezteko lekua: Udaletxeko Sarrera Erregistro Nagusian. Erreklamazioak aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten dituen tokietan.

e) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendaurreko epea amaitu eta erreklamazio edo oharrik aurkezten ez bada, hartutako erabakiak eta aldatutako ordenantzen eranskinak behin betikoak bilakatuko dira, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL MUSIKA ESKOLAKO 2022-2023 IKASTURTEKO IKASKETEN TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Ordenantza fiskalaren aldaketarekin batera tasa akademikoak murrizteko araudia aldatzea ere proposatzen da.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasun- eta pertsonal-batzordeak 2022ko apirilaren 28an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAICA BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko Udal Musika Eskolako 2022-2023 ikasturteko musika-ikasketen tasa arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketari eta tasa horiek murrizteko araudiari.

2.- JENDAURREAN JARTZEA erabaki hau eta hasitako espedienteak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Aginduaren 16.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-taulan iragarkiak argitaratuz, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Udaletxeko idazkaritzan.

b) Espedienteak aztertzeke eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteke epea: 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita; betiere, bulego-orduetan.

c) Erreklamazioak aurkezteke aukera dutenak: Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluko zerrendan agertzen direnak.

d) Aurkezteke lekua: Udaletxeko Sarrera Erregistro Nagusian. Erreklamazioak aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten dituen tokietan.

e) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendaurreko epea amaitu eta erreklamazio edo oharrik aurkezten ez bada, hartutako erabakiak eta aldatutako ordenantzen eranskinak behin betikoak bilakatuko dira, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2022KO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDIA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasun- eta pertsonal-batzordeak 2022ko apirilaren 28an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU**

ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira **HAMAIIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko Udalaren 2022ko plantilla organikoari eta lanpostuen zerrendari.

2.- JENDAURREAN JARTZEA Orioko Udalaren 2022ko plantilla organikoa, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Udaleko Idazkaritza-Kontu-hartzailletzan.

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita (iragarkia jarriko da, baita ere, iragarki-taulan eta udaletxeko ohiko tokietan).

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.2 artikulua zehazten dituenak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udaletxeko sarrera-erregistroa, bulego-orduetan. Astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era.

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendaurrean erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, Orioko Udalaren 2022ko plantilla organikoa onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

3.- ARGITARATZEA Udalaren 2022ko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, behin betikoz onartuta dagoenean, jendeak jakin dezan, Toki Araubidearen alorrean indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Lege Dekretuaren 127. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Eusko Legebiltzarreko Legearen 16. artikuluan ezarritakoa betez.

7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO PROGRAMA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Programa horren jatorrian Orioko Udaleko Giza Baliabideen Sailak egindako azterketa dago, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2. artikuluan ezarritakoa aplikatuz egindakoa.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Pertsonal-batzordeak egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAICA BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA aldi baterako enplegua egonkortzeko Udaleko giza baliabideak arrazionalizatzeko programa.

Emandako botoa azaltzeko, Anuska Esnal alkateak hartzen du hitza, Pertsonal-batzordeko presidentea den aldetik, eta adierazten du Udaleko giza baliabideak arrazionalizatzeko programa, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko helburua duena, hilabete askotako lanaren fruitu dela. Adierazten du Orioko Udalean 81 lanpostu daudela eta, horietatik, 18 bakarrik direla finkoak; beraz, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko neurri urgenteak arautzen dituen abenduaren 28ko 20/2021 Legeak Espainiako administrazio publiko guztietan egiturazko behin-behinekotasuna %8tik beherakoa izatea ezartzen duenez, Udaleko Pertsonal-batzordeak hamabosteroko bilkurak egin dituela Orioko langileen batzordearekin eta, lan horren ondorioz, Udaleko 47 lanpostu egonkortzeko proposamena egin dela. Adierazten du, baita ere, 2022ko abenduaren 31 aurretik, lanpostu horien deialdirako oinarriak onartu behar direla eta horrek, jakina, karga emozional handia duela inplikaturako langileengan. Hori guztia dela-eta, esaten du eskerrak eman nahi dizkiela Pertsonal-batzordeko kide guztiei eta Udaleko langileen batzordeko kideei, egin duten lan handiagatik.

Jose Angel Iparragirre zinegotziak (ORAIN) hartzen du hitza, eta adierazten du jakin nahiko lukeela ea nola kudeatu den beste udal batzuetan aldi baterako enplegua egonkortzeko gai hau.

Lourdes Salsamendi zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta adierazten du aldi baterako enplegua egonkortzeko Orioko Udalaren giza baliabideak arrazionalizatzeko programa hau handicap pertsonal bat dela Danbolin Musika Eskolako eta Orioko udal-kanpinek enplegatu publikoentzat.

19:00ak direla, Jon Basurko Sarasua (EAJ) inkorporatzen da udalbatzar honetara.

8.- MARTXOAREN 29KO 208/2022 ALKATE-DEKRETUAREN BERRI EMATEA. DEKRETUAK ERABAKIAK HARTZEN DITU UDAL-LANGILE BATEN DIZIPLINA-ESPEDIENTEARI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Dekretuak honela dio, hitzez hitz, erabakiaren zatian:

LEHENENGOA: Jarraian zehazten diren egitateak frogatutzat ematea:

LEHEN KARGUARI dagokionez (*Eguneko lanorduen barruan, zuritu gabe, lanpostutik alde egitea*):

2021eko martxoaren 24an (asteazkena) Uhaina Atxotegi Alegriak goizeko 08:36an fitxatu zuen laneko sarrera. Goizeko 11:45ean udaletxetik irten zen, zegokion fitxaketarik egin gabe, Mikel Izquierdo Gabarren udal-funtzionarioarekin batera, eta oinez, biok elkarrekin, Arraunetxera joan eta han sartu ziren. Eguerdiko 12:30ean atera zen handik Uhaina Atxotegi Alegria, Mikel Izquierdo Gabarrenekin batera. Elkar agurtu ondoren, bere autoa hartu (Mazda CX5 granatea, 7841 HVK matrikuladuna) eta Donostiara jo zuen, Bulebarreko aparkalekura sartu eta han aparkatu zuen, 12:50ean. Oinez irten eta Donostiako Narrika kaleko 1-1.era sartu zen. 13:45ean handik irten eta Donostiako Kale Nagusiko GALPARSORO okindegira joan eta handik ogia hartuta atera zen. Bere autoa hartu eta Oriora gidatu zuen. 14:15ean udaletxean sartu zen. Laneko irteera 14:47an fitxatu zuen. 14:48an udaletxea utzi eta, autoa hartuta, Oriotik alde egin zuen. Arratsaldean, batzorde informatzailearen bilkura zuenez, 17:54an fitxatu zuen arratsaldeko sarrera eta 20:23an irteera.

BIGARREN KARGUARI dagokionez (Urtebeteren barruan hiru hutsegite (arau-hauste) larri egin dituelako, zigortua izatea):

Orioko Udalak Uhaina Atxotegi Alegria udal-langilearen aurkako beste diziplina-espediente bat hasita zeukan lehenago. Espediente hura 2021eko martxoaren 1eko 89/2021 zenbakidun dekretuaren bidez abiatu zuen Udalak. Dekretua 2021eko martxoaren 1ean bertan jakinarazi zitzaion espedientatuari.

Hasitako beste espediente hari bukaera eman zion alkate-dekretua 2021eko irailaren 15koa da. Dekretu horren bidez, alkateak erantzuna eman zion espedientatuak aurkeztutako helegiteari eta, funtsean, uztailaren 29an ebazitakoa berretsi zuen, Uhaina Atxotegi Alegria udal-langileari arau-hauste eta zigor hauek ezarritz:

- Lehenengo arau-hausteagatik, uztailaren 6ko 6/1989 Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 84 n) artikuluan jasotzen dena, «Ordu-artarako sistemei ihes egitea edo, zuritu gabe betetzeke utzitako lanorduen jakitea eragozteko jarritako ekintzak edo omisioak», Lege bereko 87. artikuluan eta urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 96. artikuluan xedatutakoaren arabera, enplegu- eta soldata-etenaldia, **BI URTERAKO**.
- Bigarren arau-hausteagatik, uztailaren 6ko 6/1989 Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 84 q) artikuluan jasotzen dena, «Eguneko lanorduen barruan, zuritu gabe, lanpostutik alde egitea», Lege bereko 87 artikuluan eta urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 96. artikuluan xedatutakoaren arabera, enplegu- eta soldata-etenaldia, **BI URTERAKO**.

Hau da, bi arau-hausteak batuta, **enplegu- eta soldata-etenaldia, LAU URTERAKO**.

BIGARRENA: Hauek dira lege eta arau aplikagarriak:

- Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.
- Uztailaren 6ko 6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoarena, 1997ko azaroaren 7an egindako aldaketarekin (16/1997 Legea).
- Urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bateratua.
- Urtarrilaren 10eko 33/1986 Errege Dekretua, Estatuko Funtzionarioen Diziiplina Erregimenaren Erregelamendua onartzen duena.
- Urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

HIRUGARRENA: Lehen atalean aipatutako frogatutako egitateak honela kalifikatu zituen diziiplina-espedientearen instruktoreak:

Orain arte adierazitakoaren ondorioz, diziiplina-espediente honen instruktoreak hau proposatzen du:

ZIGORTZEA Uhaina Atxotegi Alegria udal-langile lan-kontratuduna:

- ARAU-HAUSTE LARRI honen egile/erantzule gisa: «Eguneko lanorduen barruan, zuritu gabe, lanpostutik aldegitea». Uztailaren 6ko 6/1989 Funtzio Publikoaren Legearen 84. artikuluan q) letran xedatutakoaren arabera proposatzen den zigorra hau da: **Funtziogabetzea (enplegu eta soldatarik gabe), 20 lanegunez.**

- ARAU-HAUSTE OSO LARRI honen egile/erantzule gisa: «Urtebeteren barruan hiru hutsegite (arau-hauste) larri egin dituelako, zigortua izatea». Uztailaren 6ko 6/1989 Funtzio Publikoaren Legearen 83. artikuluan n) letran xedatutakoaren arabera proposatzen den zigorra hau da: **diziiplina-kaleratzea edo despidoa.**

Uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 87. artikuluan eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartu zuen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 95.2 p) artikuluan xedatutakoaren arabera, diziplinazko kaleratzea (despidoa) ekar dezake, urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bateratuko 49 k) eta 54.1 eta 54.2 a) eta d) artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Arau-hauste oso larrien kasuan aplikatu daitezkeen zigorren artean hau dago: **diziiplina-kaleratzea edo despidoa.**

LAUGARRENA: Gorago adierazitako guztia ikusita, eta espediente osatzen duten agiriak aztertuta (bereziki, espedientatuak Udaleko erregistro elektronikoan aurkeztutako bi «onarpen-idatziak»: bata 2021eko azaroaren 9koa, egun berean aurkeztua, eta bestea 2022ko martxoaren 17koa, martxoaren 18an aurkeztua),

instruktoarearen ebazpen-proposamena baloratu dut eta osotasunean egiten dut bat harekin.

BOSGARRENA: Horrenbestez, **UHAINA ATXOTEGI ALEGRIA** udal-langilea **ARAU-HAUSTE** hauen egile/erantzuleztat jotzen dut:

- Alde batetik, uztailaren 6ko 6/1989 Legearen arabera, jokabide horiek honela kontsideratu behar dira: **ARAU-HAUSTE LARRIA**, 84. artikulua (q) letran xedatutakoaren arabera: «Eguneko lanorduen barruan, zuritu gabe, lanpostutik aldegitia».
- Bestetik, eta 1. diziplina-espeditenteko bi arau-hauste larri irmoei beste arau-hauste larri bat gehituz, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 83 n) artikulua («Urtebeteren barruan hiru hutsegite/arau-hauste larri egin direlako zigortzea»), eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartu zuen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 95.2 p) artikulua **ARAU-HAUSTE OSO LARRI** gisa tipifikatuta daude frogatutzat jo diren egitateak.

Eta arau-hauste horiengatik **UHAINA ATXOTEGI ALEGRIA** udal-langileari **zigor hauek ezartzea erabaki dut:**

- **ARAU-HAUSTE LARRI honen egile/erantzule gisa:** «Eguneko lanorduen barruan, zuritu gabe, lanpostutik aldegitia». Uztailaren 6ko 6/1989 Funtzio Publikoaren Legearen 84. artikulua (q) letran xedatutakoaren arabera dagokion zigorra hau da: **Funtziogabetzea (enplegu eta soldatarik gabe), 20 lanegunetz.**
- **ARAU-HAUSTE OSO LARRI honen egile/erantzule gisa:** «Urtebeteren barruan hiru hutsegite (arau-hauste) larri egin dituelako, zigortua izatea». Uztailaren 6ko 6/1989 Funtzio Publikoaren Legearen 83. artikulua (n) letran xedatutakoaren arabera eta uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 87. artikulua eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartu zuen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 95.2 p) artikulua xedatutakoaren arabera eta urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bateratuko 49 k) eta 54.1 eta 54.2 a) eta d) artikuluetan xedatutakoaren arabera dagokion zigorra hau da: **diziplina-kaleratzea edo despidoa.**

Aurrekoaren argitan, kaleratzea edo despidoa izango da lehenetsiko den zigorra, arau-hauste larriari dagokion 20 laneguneko funtziogabetze-zigorra gainditzen eta estaltzen duelako.

SEIGARRENA: Ebazpen hau interesatuari jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak ezarritako zigorrak.

ZAZPIGARRENA: Ebazpen hau jakinaraztea interesatuari, aurkeztu ditzakeen helegiteak adieraziz; Orioko Udaleko Kontu-hartzailletza departamentuari, dagozkion ondorioetarako; eta Orioko udal-langileen ordezkari, jakinaren gainean egoteko.

ZORTZIGARRENA: Ebazpen hau jasota uztea zigortutako enplegatu publikoaren espediente pertsonalean.

BEDERATZIGARRENA: Ebazpen honen berri ematea udalbatzarrari, egiten duen hurrengo bilkuran, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen 21.1 h) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

Anuska Esnal alkateak hartzen du hitza, eta aipatutako diziiplina-espedientearen tramitazioan gertatutako guztiaren laburpen historikoa egiten du. Bukatzeko, adierazten du beren lan profesionala egoki betetzen duten udal langile publikoak zaindu egin behar direla eta, aldiz, beren lan profesionala egoki betetzen ez dutenak, dagokien tokian jarri.

9.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez ziren izan.

Horrenbestez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,